

MUSIKA. Estiloa elektrifikatu zuen gizonak 'Boogie chillen', 'Boom Boom' eta 'Dimples' klasikoak sortu zituen

John Lee Hooker hil da, bere bizitza bluesari eskaini zion leienda

Joan den larunbatean eman zuen bere azken kontzertua, 83 urterekin

Agentziak | LOS ANGELES

John Lee Hooker blues gitarra jolea herenegun gauean hil zen San Frantziskoko bere etxean, lotan zegoela. 83 urte zituen arren, Hookerren heriotza ustekabe handia izan da, oraindik orain kontzertu bikainak ematen baitzituen, azkena joan den larunbatean. Dagoeneko historiko bihurtu den kontzertu horretan entzuleen txalo zaparrada jaso zuen Hookerrek, «hiruzpalau alditan entzuleak txalo batean jarri zituen, asko gozatu zuen musikarekin», Rick Bates musikariaren managerrak atzo adierazi zuenez.

Hookerren heriotzarekin, bluesak eman duen musikaririk garrantzitsuenetako bat desagertu da, Muddy Waters, Howlin' Wolf edota Lightnin' Hopkins-en parekoa. 'Bluesaren jainkoa' deitzen zioten, berak oso gustuko ez izan arren: «Batzuek uste dute Jainkoa ikusiko dutela nire kontzertuetan, baina ez zait gustatzen hori entzutea, ni neu baino ez dut izan nahia eta», esan zuen duela gutxi.


Mississippin jaioa, hamalau urterekin ateratzen zen errepidera. Memphiseko tabernetan jotzen hasi zen, ondoren Cincinnati,

eta 1943an Detroitera iritsi zen. Bigarren Munduko Gerra aurreko blues akustikoa, 50eko hamarkadako blues elektrikoa eta 60ko *revival*-a ezagutu zituen John Lee Hookerrek.

Ehun disko inguru

1948an bere lehen kantu arrakastatsua kaleratu zuen, *Boogie Chillen*. Hortik aurrera hainbat disketxerekin grabatu zuen *The Boogie Man*-ek, horietako asko goitizenerkin sinatuta daude: John Lee Booker, Texas Slim, John Lee Cocker, Delta John... 60ko hamarkadaren hasieran, bere ospea hazi zen, *Boom Boom* eta *Dimples* bezalako kantuei esker. Gerora, The Rolling Stones, Santana eta Van Morrisonek, besteak beste, Hookerrengandik jasotako eragina aitortuko dute. Guztira, ehun disko inguru grabatu zituen.

Etenaldi baten ondoren 1989an berragertu zen, Santana, Bonnie Raitt, Robert Cray eta George Thorogooden alban. Azken hamarkadan *Boom Boom*-en bertsio berri batekin arrakasta handia lortu zuen, eta Grammy sari bat irabazi zuen *I'm in the mood*-ekin. Hitz emandakoa betez, bluesa jotzeari utzi gabe joan da John Lee Hooker.



WILL POWERS / EFE

John Lee Hooker, joan den otsailaren 18an Phoenix (EEBB) hirian emandako kontzertuan.

IRITZIA

Joseba Martin ■ KAZETARIA

Agurraren 'boogie'-a

John Lee Hookerren heriotzarekin batera indarreko mitoa desagertzen zaigu. Bere bizitzan eta bere lanetan bluesaren historia jarrai dezakegu: Mississippin jaio eta hazi, Detroitera emigratu, gitarrari elektrizitateaz sua eman eta musika-hizkuntza berria sortu —kasu honetan *boogie* erritmo zoragarria—.

Urteak joan urteak etorri, Clarksdaleko mutila ez da gelditu, eta B.B. King bluesaren erregea bazen, John Lee Hooker aitajauna dugu: orain dela 50 urte hasi zen grabaketan —lehenago agertokian—, eta lanean jarraitzen zuen. Disketxe txikietan (Modern, King, Regent, Savoy, Danceland, Staff, Federal, Vee-Jay, Chess, Specialty...) eta handietan (MCA, Pointblank/Virgin) grabatu zituen eta guzti horietan —dirudienez, azken urteotakoak ez ziren hain interesgarriak, 60ko hamarkadakoak nahiago ditut—.

Eta horrela, gitarra nahastezin horrekin,

akordez akorde, mila aldiz entzundako leloak utzi dizkigu hegoaldeko mutilak: *Boom boom*, *Walkin' the boogie*, *Boogie chillen*, *Tupelo*, *Dimples*, *I'm in the mood*, *Maudie*, *Blues before sunrise*, *It serves you right to suffer...*

Kasualitatez, kantu horiek beste musikariek eginda topatu genituen lehenbiziko aldiz, batez ere Erresuma Batuko taldeen eskutik. Eta poliki-poliki, hainbat buelta eman ondoren, John Lee Hooker txikiaren handitasuna ezagutu genuen.

Zerbait berezia zegoen lagun honen kantuetan eta gitarra jotzeko moduan: haserre zegoela ematen zuen, eta egoera hori gaintzeko gogor jotzen zion bai eztaariari bai gitarrari. Bera ez zen B.B. King irribarre errazekoa, ez. Energia horretan topatzen dugu Hooker benetakoa, kapela eta guzti.

Badakizue: kapela buruan eta hedatu bluesa munduan. *Thank you*, John Lee.

KM
kulturuna

Artea kalean.
Performances

Donostia-San Sebastián
Zurriola

ekainak 23, larunbata

12:00 Boris Nieslony
O. T.
30-40 min
hasiera: Zurriola hondartzan

19:00 Sandy McFadden
In the street
45 min
hasiera: Zurriolako barran,
hondartzaren izkinan

22:00 Richard Martel
Exercice de transfert artistique
30 min
hasiera: Argentinako errepublika
pasealekuan



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Plazaren barruko egitaraua

Estudio Lantzagora